

noaua



"URDEREN KONDAIRA", EUSKAL GIROKO INAUTERI IKUSKIZUNA


Orbeldi Dantza Taldeak taularatuko du otsailaren 28an, herriko hainbat eragilerekin batera / 06-08 or.

ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

**Santixabel jaiak
uztailaren 1ean
hasi eta 6an
amaituko dira** / 05




MARI KARMEN AIZPURUA

**"Bachata, salsa...
Dantza latinoen
ikastaroan halakoak
ikasten ditugu"** / 09



IZAN BAI

**Izan Bai-ren lehen
kontzertua, larunbat
honetan Aginagako
Eliza Zaharrean** / 15



NOAUA

**Xabier Elosegik
Gipuzkoako notarik
onena atera du MIR
azterketan** / 18



ANDATZA TABERNA

*Neguko
ordutegi berria!*

**EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK**

Ostegunetan

Pintxo pote!

8:00-20:00 Astelehenerik - Ostegunera **BAZKARIAK**
8:00-23:00 Ostiraletik - Larunbatera **BAZKARIAK / AFARIAK**
8:00-21:00 Igandeak **BAZKARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



Tailandia

IRTEERA 2025eko irailan



Noaok gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaok.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko ATEAK ZABALIK



ERDI MAILA

Otsailak 22 10:00tan
Martxoak 25 17:00tan
Apirilak 5 10:00tan

GOI MAILA ETA ESPEZIALIZAZIOA

Otsailak 22 11:30tan
Martxoak 27 17:00tan
Apirilak 5 11:30tan

IZENA EMAN



**EZAGUTU
GURE IKASTETXEA!**

tel. 943 36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS

Zumarteko eskaintza ezagutuz

Larunbat goizean Zumarte Musika Eskola ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek. Eta ez eskaintza bakarrik, askok zaharbertitze lanez gerortik barnealdea ikusi gabe zeukaten, eta arkitektuek prestatutako proiektuaren xehetasunak ere eman zituzten.

Instrumentu eta musika eskaintza ezagutzeaz gain, irakasleekin denbora pixka bat hartu eta instrumentuak probatzeko aukera ere izan zuten txikiek.



Bisitara animatu zirenek perkusio instrumentuak ezagutu eta probatzeko aukera izan zuten.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo erdigunean

Otsailaren 20tik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 27an osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

Kzgunea arratsalde zabalduko dute otsailean

Otsailaren 28ra arte arratsalde zabalik izango da KzGunea, 16:00-20:00 artean. Martxoan goizez irekiko dute:

- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiagorako:
943 023 684

Hilabete honetako kantu-jiran hiru talde elkartuko dira

Usurbilgo Kantu Taldea hila-beteko azken larunbatean atera ohi da kalera. Astelehenoroko entseguetan landutakoa plazaratzen dute hilabeteroko hitzorduan. Otsailareko 23koan, oraingoan igandearekin, Sopela eta Basauriko kantu taldeak arituko dira Usurbilgoarekin batera kalejiran.

Jokin Eizagirrenen erakusketa Guria tabernan

Jokin Eizagirrek jaietako maskota egiten du eta gabonetan, apaingarriekin edertzen ditu herri erdigunea eta auzoak. Margolaria ere bada eta bere hainbat koadro hautatu ditu eta Guria tabernan ipini ditu ikusgai. Erakusketa martxoaren 30era arte egongo da zabalik.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Egiak aurpegira

2025eko urtarrilaren 20an Donald Trump AEBetako 47. presidente bezala inbestitu zuten. Une berean, bere bigarren agintaldiari ekin zion. Zeremoniaren parte handi bat ikusi nuen. Baina, gogoeta honetan inbestiduraren jarraian gertatu zena azpimarratu nahi nuke: ospakizun erlijiosoa, han ikusia eta batez ere, entzun genuena.

Bi protagonista: Donald Trump eta batez ere, Mariann Budde, emakumezko gotzaina eta berak zuzentzen ditu Washingtongo katedral Nazionalako ospakizun erlijiosoa. Han zeuden lehen lerroan Trump eta bere emaztea Melania, beren familiaz eta amerikar jauntxo inguratuak. Hantxe entzun behar izan zuten gotzainaren homilia historikoa.

Mariann Budde agurgarriak 65 urte ditu, Washington DCko Gotzain Elizaren 86 kongregazio eta 10 eskolen eta Maryland estatuko lau konderriaren buruzagi espirituala da. Bere elizako Washingtongo gotzain karguandagoen lehen emakumea da, eta, ziurrenik, munduko anglikanoen artean liberale-natarakoa. Gainera, historia-ria, ama eta amona da.

"Errukia" eskatuz hasi zuten bere hitzaldia: "Presidente jauna: milioiek zuregan jarri dute beren uste ona, zutaz fidatu dira. Eta atzo esan ze-



Mariann Buddek zuzentzen ditu Washingtongo katedraleko ospakizun erlijiosoa.

nuen bezala, maitasunezko Jainko baten esku probidentziala sumatu omen duzu. Jainkoaren izenean eskatzen dizut errukia izan dezazula gure herrian beldur den jendearentzat", esan zuen Buddek. Eta jarraian: "Badira gure artean pertsona gay, lesbiana eta transexualak, eta familia demokrata, errepublikar eta independenteak, eta horietako batzuk beldur dira".

Migratzaileak ere ez zituen ahantzi: "Uztak biltzen dituen jendea, gure bulegoak garbitzen dituen. Jatetxeetan jan ondoren, ontziak garbitzen

"DUINTASUNAREN ETA AUSARDIAREN IRUDI PAREGABEA IZAN DA MARIANN BUDE GOTZAINA"

dituztenak. Eta ospitaleetan gaueko txandetan lan egiten dutenak. Baliteke herritarrak ez izatea, edo dokumentazio egokia ez edukitzea. Baina migratzaile gehienak ez dira kriminalak".

Trump protestante presbiterianoa da, eta Biblia omen du libururik gogokoena. Sermoiaren ondoren ez zen pozik agertu, eta bere sare sozialetan gotzainaren aurka idatzi zuen: "Komentario desegoki-ekin, sermoia aspergarria izan zen, eta oso inspirazio gutxikoa. Berak eta bere Elizak publikoki barkamena eskatu behar dute". Bistan denez, Gotzainak adierazi zuen ez zuela inolaz ere egingo.

Duintasunaren eta ausardiaren irudi paregabea izan da Mariann Budde gotzaina. Eta amaitzeko galdera bat: Eliza katolikoan noizko apaiz eta gotzain emakumezkoak?

Ate irekien egunen egutegia prest du Lanbide Eskolak

HH, LH eta DBH zikloetako ikastetxeen 2025-26 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina amaitu ostean, aurrerago abiaraziko dute Lanbide Heziketari dagokiona. Horri begira, urtero moduan, ate irekien egunen zikloa antolatu dute otsailetik apirilera. "2025-26 ikasturtera begira, ikasleek eta familiek gure prestakuntza eskaintza ezagutzeko gure ikastetxeko atearabalduko ditugu", iragarri dute. Lehenengo saioa, hilaren 22rako iragarri dute.

- Otsailak 22: 10:00 Erdi maila / 11:30 Goi maila eta Espezializazioa.
- Martxoak 25: 17:00 Erdi maila.
- Martxoak 27: 17:00 Goi maila eta Espezializazioa.
- Apirilak 5: 10:00 Erdi maila / 11:30 Goi maila eta Espezializazioa.
- Izen-ematea eta informazio gehiagorako: 943 364 600 / lhusurbil.eus

Elkargunearen aurkezpena

Proiektu horri buruzko hainbat xehetasun plazaratzeko aurkezpen ekitaldia iragarri dute sustatzaileek (Udala, Gazteak, Ziortza Gazte Elkarte, Kulturgunea eta Aztarrika Gazte Asanblada) otsailaren 22an, eguerdiko 12:00etan Sutegiko auditorioan. Iaz garai honetan Elhuyarrek dinamizaturiko parte hartze prozesuak emandakoa, eraikinaren proiektua, izena, marka eta hurrengo urratsen berri emango dute.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

TXAPELDUN
ARDANGELA
EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurre 2, 943 49 88 83

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



Egunez eguneko egitaraua hurrengo bileretan zehaztuko dute.

Usurbilgo jaiak uztailearen 1etik 6ra ospatuko dira

Jakinmina eragin ohi duen erabakia hartu du Usurbilgo Jai Batzordeak. Izan ere, hainbat herrikide izaten da ezagutzeko gogoz noiz hasi eta noiz bukatuko diren herriko festak, zenbat jaieguna izango dituzten Santixabelek.

Otsailaren 13rako deitua zuen Usurbilgo Jai Batzordeak herriko festak antolatzen hasteko lehen bilkura Potxoenean. Deitzaileek nabarmendu moduan, giro ederrean eta adostasunez bideratu zuten irekia zen lehen bilera hau. Festen ekitaldien antolakuntza lanetan parte hartu ohi duten herri eragile ezberdinetako kideak izan ziren bertan, kultur arloko zinegotzi Jon Mikel Azpiazu Zubeldiak gidatu zuen saioan. Bilgune irekia da, ekarpenak egin nahi dituen eragile nahiz norbanako orok parte har dezake bertan.

Uztailean

Urtero lehen bilkuran hartzen duten lehen erabakia festen iraupenarena da; Santixabelak noiz hasi eta noiz amaituko diren. Urte batzuetan lehena go hasi eta amaitzen dira, beste urte batzuetan geroago. Uztailearen 2a (udalerrri mailako jaieguna) Santixabel eguna

noiz egokitzen den, horrek baldintzatu ohi du jaiak noiz hasi eta noiz amaitzen diren herri honetan.

2025eko egutegiari erreparatzen badiogu, uztailearen 2a asteazkenez egokituko dela jabetuko gara. Beraz, zalantza zen, aurreko urteen ildotik, ekaineko azken asteburuan hasi eta uztailearen 2 horretan amaituko ote ziren festak edota Santixabel bezperan hasi eta uztaileko lehen asteburuan bukatuko ote ziren.

Ekintzen definizio lana

Aurtengoan, beraz, sei jaieguna izango dituzte Santixabelek, uztailearen 1etik 6ra. Aurreko edizioetan, bost izaten ziren festa egunak. Honenbestez, egun bat gehiago izango du 2025eko edizioak. Horregatik, jai batzordetik aurreratu dutenez, ekintzak egunotan zehar dosifikatu asmo dituzte.

Horixe da hain zuzen, urtero moduan, eman asmo duten hurrengo urratsa; egun bakoitzean zer ekitaldi txertatu erabakitzea. Horretarako, hurrengo bilerarako festen antolakuntzan ekarpenik egin nahi duenari ekintza proposamenak aurkezteko deia egin zaio. Saio guztiak bezala, irekia izango den datorren bilerari hori, otsailaren 26an egingo da, asteazkenarekin, arratsaldeko 17:30ean Potxoenean. Egun horretan segiko dute, aspaldiko partez uztailean ospatuko ditugun Usurbilgo festen diseinu lanarekin.

**"JAI BATZORDEA
OTSAILAREN 26AN
BATUKO DA
BERRIRO
POTXOENEAN"**

Martxoaren 8ra begirako ekitaldiak

Kalezarko Pelaioken kokaturiko Emakumeon Etxean uda bitarte iragarritako ekimen zikloaren baitan, datozen hitzorduetan Martxoaren 8ra begirakoak izango dira:

Otsailak 23, igandea

- 10:30 35. Lilatoia, emakumezkoen lasterketa herrikoia Dornostian.
- Zehaztasunak: Usurbilgo Emakumeon Etxeak talde bezala eman du izena. "Taldean izena emandako emakume guztiak elkarrekin hartuko dute parte".

Martxoak 5-6

- 18:00-20:00 Musika elektronikoa eta feminismoa uztartzen dituen KRII Kolektiboak DJ ikastaro labur bat emango du Emakumeon Etxean.
- Izen-ematea otsailaren 17tik 28ra izango da.

Martxoak 8, larunbata

- 21:00 Pikoteo musikatu Artzabalaren. Martxoaren 5 eta 6ko "DJ ikastaroan parte hartutakoek ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango dute, eta haien ostean KRII Kolektiboko kideek ere parte hartuko dute".

Izen-ematea eta informazio gehiago:
943 377 112
emakumeonetxea@usurbil.eus



Usurbilgo herri inauterietako protagonistak; festa giroa ekarriko diguten sei pertsonaiak.

"Gurea sortzen hasi behar genuela erabaki genuen"

Herri inauterien aldeko apustua sendotuko duen kalejira berezi baten eskutik murgilduko gara aurtengoan mozorro festan. Otsailaren 28an "Urderen kondaira" plazaratuko duen ekimenarekin bat egitera deitu dute, lankidetzan prestatu eta hitzordu bizi bezain bihurrikako sortutako pertsonaien antzera mozorroto eta herria zeharkatuko duen ibilaldian barneratzeraz.

"Duela urte asko, denbora behe-lainoaren atzean ezkutatzen zengarrietan, basurdeak ziren Andatza mendiaren jabe, eta denen buru Urde. Bere presentzia hutsak halako izua sorrarazten zuten ingurukoengan. Zazpi gizakumeren altuera zuen, ile zuri lakarra, letagin ikaragarriak, matrailla sendoa eta begirada hotza. Andatzara joaten ziren usurbildarrek bazekiten nondik ibili Urderekin ez elkartzeko. Belaunaldiz belaunaldi etxeetan hitz egiten zen Urderi buruz. Nola hark menditik zaintzen zituen inguruko lurrik eta herritarrek esker oneko izan behar zuten bere babesagatik. Halere, neguko hotzak

oraindik bere atzaparrak ezkutatu gabe zituela, sabel hutsarekin orroka hasten zen eta arrapaladan jaisten zuten mendia beheko lurretara gosea ase nahian. Urdetxoek buruzagiaren etorrerairagarriz, eroen abangoardia ziruditen, aztarrika eta orroka inguruko denak izutuz, umeak negar malkotan utziz eta helduak ikusten zutenaz atsekabetuz. Eta denen atzetik, Urde buruzagia".

Tokikoa sustatzea

Hala abiatzen da "Urderen kondaira" eta Usurbilgo herri inauterien sorrera. Kondairak segida, otsailaren 28an izango du, Orbeldik hainbat herri

eragilerek lankidetzan antolaturiko herri inauterietan. Usurbilgo hitza hizki larriz nabarmendu beharrekoa dugu lerrootan azalduko dizuegunagatik. Hainbat urte badira herriko dantza taldea "euskal giroko inauteriak" plazaratzen hasi zenetik. "Lehenengo urteetan saiatu ginen beste he-

"ANDATZARA JOATEN ZIREN USURBILDARREK BAZEKITEN NONDIK IBILI URDEREKIN EZ ELKARTZEKO"

rrietako inauteriak Usurbila ekartzen", duela urtebetera arte. Izan ere, iaz, "gurea sortzen hasi behar genuela erabaki genuen; geure pertsonaiak, geure istorioa, geure dantza", Orbelditik NOAUA!-ri azaldu diotenez. Hor sortu eta plazaratu zuten estreina-koz 2024ko mozorro festari ekiteko, "Urderen etorrera". Eguraldiak ez zuen behar bezala lagundu eta ezin izan zuten aurreikusitako kalejira bere osotasunean egin. "Kalejira motza egin genuen, bi geldialdirekin soilik", Orbelditik oroitarazi dutenez.

Errotzea erronka

Aurten, are apustu sendoagoa egin dute herri inauterion alde. "Festa handia prestatu dugu", berri eman dute Orbelditik. Urderekin batera bost pertsonaia sortu eta herri eragile gehiagoren parte hartzea izango duen kalejira zabalago bat antolatu dute. "Oso gustura ari gara lanean proiektu honenkin", gaineratu dute. Zerbait pista jaso dituzte Euskal Herriko beste txoko batzuetako ohituretatik, baina inguru hau ahaztu gabe. Izan ere, "Usurbilgo leku ezberdinetatik" jaso dituzte bereziki herri inauterion bereizgarri izango diren erreferentziak; ondoko orrialdean dituzuen pertsonaien jatorri edota bizilekuari, itxurari edota ogibideari erreparatu besterik ez dago. "Gure asmoa, herri inauteri hau errotzea da", aurreikusi dute dantza taldeak. Datozen urteotan segida izatea nahi lukete, baina era berean, ospakizun eraldatzailea ere izatea nahi dute. "Hurrengo urteetakoek ez dute zertan izan behar aurten egingo duguna. Inauteri dinamikoa izatea nahi genuke, pertsonaia eta kalejira berriak txertatzen joatea, unean uneko errealitatea islatuz. Herria aldatzen joan ahala, inauteriak aldatzen doaz. Baina gurea den zerbait sentitzea nahi dugu, herritik herriarrentzat sortutakoa izatea".

Usurbilgo inauterietako sei pertsonaiak

Otsailaren 28ko kalejiran sei pertsonaia izango ditugu. Haien gisan mozorrotzeko deia egin dute.

Usurbilgo herri inauterietan murgilaraziko gaituzte herri eragile hainbatek lankidetzan plazaratuko duten Urderen etorreraren kondairarekin. Sei pertsonaia sortu dituzte; Andatzan bizi den Urde, Aranerrekako lamiak, Txokoalde zein Aginaga aldeko anguleroak, Kalezarko harrapariak, inauterien zain diren zakuak eta Urderen laguntzaile adarjotzaileak. Ondoko argazkiotan duzue haietako bakoitzaren itxura.

Gutako bakoitza ere haiek bezala mozorrotu eta otsaila-

ren 28ko kalejiran barnertzeko gonbita egin digute antolatzaileek, gonbidapen bikoitza hain zuzen. "Nahi duguna da herritarrek mozorrotuta parte hartzea", animatu dute antolatzaileek. Horrez gain, ibilbidean zehar izango diren, kantu, dantza, irakurketa... horietan parte hartzeko ez dezatela lotsarik izan. Inauteriak ondo pasa eta parte hartzeko festak dira. Hori da nahi duguna; jautzia, kantuan, oihuka parte hartzea. Pertsonaia batek zer bait eskatuz gero, eman beldurrik gabe".



Urde, Andatzako izaki bihurria.



Aranerrekako lamiak.

Urde, Andatzan bizi den izakia

Bihurria da. Kaosaren pertsonifikazioa da, inauterien izpiritua. Urtean zehar basurde itxura du, Usurbil eta usurbildarrak zelatatzen ditu. Urtean behin herrira hurbiltzen da herritarrekin nahastera.

Lamiak, izaki magikoak

Aranerrekako izaki maitagarriok ura eta argia kontrolatzen dute. Argitasuna, alaitasuna eta maitasuna baliatzen dute errekaratu eta horrela, giza-kiaren anima harrapatu eta betirako kondenatuak izateko.



Anguleroek farolatxoak dituzte.



Harrapari gehienak, Kalezarkoak.



Zakuak dantzariak eta kantariak dira.



Adarjotzaileak, Urderen laguntzaileak.

Errio inguruko anguleroak

Errio inguruko pertsonaiak dira, Txokoalde eta Agiñatik etortzen dira. Farolatxoak dituzte eta neguko ilunean argia egiten dute. Anguleroek laguntzen diete herritarrei beraien bidea argitzen, dituzten arazoei aurre egiteko.

Urderen harrapariak

Herrira ordena ekartzeko ardura dute. "Villa Belmonte" garaikoak dira, Kalezarko gehienak. Urderen harrapariak dira, inauterietako izpiritua Usurbila ekartzen dute. Zintzarriak dituzte Urde deitzeko eta makilak lurra astintzeko.

Inauterien zain dauden zakuak

Herritarrek dira, inauteriaren zain daudenak. Dantzatzea eta kantatzea gustuko dute, festa alegia. Harrapariei Urde aurkitzen laguntzen diete, haien garrasi eta oihuak oso garrantzizkoak izango dira lan horretan.

Adarjotzaileak, Urderen bidelagun

Azkenik, Andatzan bizi den izaki Urde bihurriaren eta inauterietako izpirituen laguntzaileak dira adarjotzaileak. Usurbilgo herria oso ondo ezagutzen dute eta adar soinua erabiltzen dute Urderekin komunikatu ahal izateko.



lazko Urderen etorreraren amaierako dantza saioa frontoian.

Herri inauteriak lehenik, superheroienak gero

Bi eguneko mozorro festan murgiltzear da Usurbil. Superheroiaren jaialdia izango dugu martxoaren lehenean. Bezperan, errotzea erronka nagusi duten herri inauteriak sustatzearen aldeko apustua plazaratuko dute eragile hainbatek, guztiok partaide izatea nahi duten herri kalejiran.

Bertako, tokiko inauterien aldekoizango dugunabarmen aurtengo mozorro festa. As-tebete barru parranda giro koloretsuan murgilduko gara, aurtengoan, otsailaren 28ko herri inauterien eskutik. Orbeldi dantza taldeak herri eragile gehiagorekin lankidetzan usurbildarrak batu nahi dituen kalejira antolatu du Agerialdetik hasi eta Aranerreak, Ugartondo eta Kalezar zeharkatu ostean Mikel Laboa plazan amaitu arte. Aipatu gune horietan guztietan, kan-

tuan nahiz dantzan aritzeko aukera izango da. Ezusteko gehiago ere izango dira. Usurbildik herriarentzat sortutako inauteriok barneratzen has-teko ahalegina izan nahi du ekimen honek. "Urde izeneko pertsonaia sortu genuen iaz. Inauterietako izpiritua izatea nahi dugu, ospakizun hauen erreferentzia izatea nahi duguna, bertakoa, geurea", Orbelditikaditzera eman dutenez. Bera eta gainerako pertsonaien antzera mozorrotu eta kalejirako ikus-entzule soilik ez,

haiekin bat egitera deitu gaituzte hilaren 28an. Lankidetzan bideratuko dute herri inauterien kalejira hau Orbeldikoek. Bidelagunei esker ona adierazi nahi diete. "Eskerrak eman

**"URDE IZENENKO
PERTSONAIA
SORTU GENUEN IAZ.
INAUTERIETAKO
IZPIRITUA IZATEA
NAHI DUGU"**

nahi dizkiegu gure erokeria honi baiezkota emateagatik", adierazi dute Orbelditik.

Superheroiaren festa

Herri inauterion ostean, mozorro festak biharamunean izango du segida, martxoaren lehenean. Zuek hala erabakituta, superheroiak dira larunbat horretan mozorrotzeko proposatzen dizuegun gaia. Jantzi eta inauteri giro koloretsu eta alaiak kalean bizitzeko Burrunbazale txarangakoak bueltan izango ditugu arratsaldean eta gau partean Itzal taldekoe-kin erromeria. Ohi bezala, halere, gaztetxoek emango diete hasiera ospakizun hauei bezperan. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

Inauteri Festa

Otsailak 28, ostirala

18:30 Usurbilgo inauteria. Urde badator! Herri-kalejira Agerialdetik abiatuta. Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzera! Ibilbideko geltokiak: Agerialde, Aranerreak, Txirikorda, Kalezar, babarrun formako biribilgunea, Mikel Laboa plaza.

Martxoak 1, larunbata

Mozorrotzeko gaia: superheroiak.
18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
22:30 Itzal erromeri taldearen emanaldia frontoian.

Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Orbeldi dantza taldea.

Laguntzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkartea, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkartea.

Atari
Patri-
lategia
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
· PLATER KONBINATUAK
· BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Gure Pakeak antolatzen du ikastaroa baina edonork eman dezake izena, gazteek nahiz helduek.

"Dantza latinoen ikastaroan edonork eman dezake izena"

MARI KARMEN AIZPURUA DANTZARIA

Zumarte Musika Eskolako ganbaran kuadrilla majoa batzen da. 'Salsa', 'bachata' eta antzeko dantzetan trebatzen dira Amaia Gonzalez Caballero irakaslearekin batera. Horien artean da Mari Karmen Aizpurua kalezartarra. Ikastaroa urrian hasi bazen ere, izena emateko aukera zabaldu dute berriro. Beraz, interesa duenak, oraintxe du dantza latinoen ikastarora batzeko aukera.

Dantza latinoen ikastaroan izena emateko aukera zabaldu duzue. Hau ez da berria, ezta? Noiz hasi zineten ikastaro hau antolatzen?

Klaseokin lehengo urtean hasi ginen. Lehenago ere ibili ziren, baina Gure Pakeatik orain dela urtebete hasi ginen.

Normalean, gainontzeko ikastaroak urrian hasi eta ekainera bitarte luzatzen dira. Zuek urte naturalarekin funtzionatzen duzue akaso?

Ez, gurea ere hasita dago baina urtean hiru hilabetez behin pagatzen da kuota...

Beraz, oraindik bada plaza librerik.

Bai, baina ez pentsa, toki askorik ere ez dago. Asteartetan 17 lagun elkartzen dira eta ostegunetan 14 bat. Baina aukerarik badago oraindik.

Dantza latinoen artean aukera zabala izan daiteke. Zeintzuk dira ikastaroan lantzen dituzue-nak?

'Bachata', 'salsa en línea', 'chachachá'.... Horiek ikasten ditugu eta hortik aurrera, beste gauza asko ere bai. 'Rock and roll', eta beste. Aukera asko eskaintzen ditu.

Nork ematen ditu eskolak?

Amaia Gonzalez Caballerok ematen ditu eskolak. Oso ona da. Lasarte-Orian urte asko egin ditu eta oso diziplinatua da. Jendea oso gustura dago berarekin.

ASTEAN BEHIN, ORDUBETEZ ELKARTZEN DIRA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO GANBARAN

Ikastaroa Gure Pakea Elkarteak antolatzen duen arren, ez da jubilatuentzako bakarrik, ezta? Edonork har dezake parte.

Hori da. Gazteak ere etortzen dira.

Euskal dantzetan, mutil gutxi animatzen da. Dantza latinoetan ere gauza bera gertatzen al da?

Bi bakarrik ditugu! Eta pena da, dantza hauek 'parejan' hobeto egiten direlako. Ni asper-tu naiz esaten, baina ezinezkoa da. Jada ez dakit zer egin.

Zumarteko ganbaran ispiluak daude paretetan. Horrek ere asko erraztuko du irakaslearen lana.

Toki ederra da baina oso beroa da. Hala ere, pozik gaude tokiarekin.

Dantza latinoen ikastaroa

Une honetan, bi talde daude martxan. Batzuk asteartetan elkartzen dira, eta besteak asteazkene-tan. Astean behin ordubeteko saioa egiten dute Zumarteko ganbaran. Gure Pakea elkarteak antolatzen duen arren, gazteak zein helduak joaten dira ikastarora. Interesa duten guztiek hortaz, atek zabalik dituzte.

• Tokia: Zumarte Musika Eskolako ganbaran.

• Bi egun aukeran: Asteartetan: 16:40-19:40. Edo ostegunetan: 16:00-17:00.

• Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, telefono zenbaki honetara deitu: 655 731 915.

• Antolatzailea: Gure Pakea.



Asteburu honetan mahai bat jarriko dute Sutegiko atarian.

Pentsiodunen Mugimenduaren sinadura bilketa Sutegin

Pentsio duinak exijitzen ari dira 2018ko urtarrilaz geroztik. "Pentsioen duintasuna ez da opari bat, langile klase osoaren eskubidea baizik", gogorarazi dute.

Urrats berria eman du azkenaldian Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak. Izan ere, Herri Ekimen Legegile (HEL) bat ari dira sustatzen, "Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" eta horren baitan, "14 ordainsaritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihur dadin".

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izapidetzeko onartu du Herri Ekimen Legegile hau. Testuinguru horretan, berau babesteko urte amaieran plazaraturiko manifestuaren aldeko sinadura bilketari ekin zioten herriz herri. HEL-arekin bat egiteko alegia, sinadura kanpainari ekin dio Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak.

Sutegiko atarian

Usurbilen ere sinatzeko aukera izango da egunotan; Sutegi atarian hain zuzen. Segidan duzue sinatzeko hitzorduen berri. Herri Ekimen Legegilearen testu osoa eta informazio gehiago, ehpentsiodunak.eus atarian eskura dezakezue.

"Justua, premiazkoa eta beharrezkoa"

Argi diote manifestuan, "lege-ekimen hau babesten dugu, zahartzaroan duintasunez bizitzeko diru-sarrerara egokiagoak bermatzen baititu, gutxieneko pentsioa Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatuz, hirurogei urteko gorako pentsiodun bakoitzari beharrezko osagarria esleituz bere bizikidetzaren harreman direnak direla, eta eskumena duen administrazioak ofizioz aplikatuz, horretarako behar den informazio guztia baitu".

Erantzukizun hori bere gain hartzea eskatzen diete Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari. Herritarrei, "justua, premiazkoa eta beharrezkoa den HEL hau sina eta babes dezan" galdegin diete.

Sinadura bilketa egunak

- Otsailak 21, ostirala: 18:30-20:30, Sutegin.
- Otsailak 22, larunbata: 11:30-13:30, Sutegin.
- Otsailak 28, ostirala: 19:30-21:00, Sutegin.

Kantu-jira berezia

Hemen dugu otsaileko azken larunbata, Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak plazaratu ohi diren eguna. Oraingoan, ordea, egun bat atzeratzea erabaki dute hitzordua. Izan ere, hilaren 23an egingo da otsailari dagokion kantu-jira. Ezohikoa izango da, ez soilik hitzordua

egunez aldatu dutelako, bide-lagun berriak izango dituztelako baizik. Otsailaren 23ako kantu-jirara batuko zaizkie Sopela Kantari eta Kilometro-kantu Basauri kantu taldeak. Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira denak elkarrekin kantari, Mikel Laboa plazatik.

Euskaraldia antolatzen segitzeko bilera

Maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldia antolatzen hasia da Usurbilen, herrian bertan sortutako batzordea. Azaroaren 30eko Aginagako Eliza Zaharreko Euskararen Galan aurkeztu zuten bilgunea jendaurrean. Parte hartzeko gonbita egin zioten herriari. Biltzean hasiak dira ordutik Potxoenean. Antolaketa lan hauei segida hurrengo bilera otsailaren



Otsailaren 25ean elkartuko dira.

25erako finkatu dute, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Kontzertu berezia, Kalezarreko ermitan

Martxoaren 8a, Emakumeen Eguna, gerturatzen ari da eta eta egun seinalatuaren inguruko kontzertu berezia prestatzen ari dira Zumarten. "Zumarteko Abesbatzak eta Kantuko ikasleak, emakumeek konposaturiko kantak eskainiko dituzte", Musika Eskolatik aditzera eman dutenez.

Jon Imanol Etxabek zuzenduko du emanaldia.

Zumarteko Abesbatzak eta Kantuko Ikasleen kontzertua

- Martxoak 5 asteazkena.
- Arratsaldeko 19:00etan.
- Kalezarreko ermitan.
- Zuzendaria: Jon Imanol Etxabe Telleria.

Sareren mobilizazioa

Astebete barru deituko du Sarek euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko hileroko azken ostiraleko elkarretaratzeari.

Otsailaren 28an

Otsailaren 28an egingo da, 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Garbitaniaren bi lan-poltsa deialdi

Gidari biltzaileen eta peoi balioanitzen lan-poltsak handiagotzeko deialdia plazaratu du Garbitania entitate publikoak. Interesdunek eskabideak aurkezteko otsailaren 24ra arteko epealdia izango dute. Informazio gehiago garbitania.eus bidez jaso ahalko duzue.



"Batzuetan oso zaila da musika eta lanbidea uztartzea".

"Oso gustura aritzen naiz Usurbilen. Jende asko hurbiltzen da"

PETTI KANTARIA

25. urteurrena ospatzen ari da Petti musikaria. Ibilbidea hasi zela, eta lehen disko hartatik mende laurden egiten den honetan, igandean kontzertua eskainiko du Sutegin arratsaldeko 18:30ean.

Ibilbidea labur-labur deskribatu beharko bazenu, zer esango zen nuke?

Denetik izan da. Hasieran gazteak ginen eta ongi pasatzeko bidetzat ulertzen genuen, eta parrandarako tarte edertzat. Orain oso ezberdin ikusten dugu kontua, gure ogibidea ere bilakatu baita. Bizitza eta mezu bat zabaltzeko modu bat da nolabait.

Askotan izan zara Usurbilen.

Bakarka ibili izan naiz eta taldean ere bai. Youtuben begira ibili naiz eta 2014ko bideo bat aurkitu dut Sutegin; lehen kontzertua. Irrati tabernan ere makina bat aldiz izandakoa naiz, eta herritar ugari ezagu-

tzen ditut. Jende asko hurbiltzen da Usurbilgo kontzertuetara eta oso gustura ibiltzen naiz.

Ruben Caballero herritarra duzu gitarjole.

Zuzeneko diskorako fitxatu genuen eta bost edo sei kontzertutan izan da gurekin. Eta nolaez, Usurbilen ere kontzertuan izango da.

Zure lehen kantua "Bera" izan zen eta zu beratarra zara. Zenbateko eragina du zure herriari musikan?

Neure lehen kantua izan zen. Nahiko abesti kritikoa da herriarekin eta herriko jendearekin. Ez zuten gehiegi ulertu

hemen, jotzen nuenetan txalo egiten zidaten eta. Bizi zaren lekuak bizi izan dituzun esperientzietako asko kontatzen ditu. Gaztea nintzen abestia egin nuenean, eta ez nintzen Beratik askorik atera. Beraz, bizitzako esperientzia guztiak herrikoak zirenez, kantuak sortzeko aukera ere

"EGOERA LARRIAN EGON GINEN, BAINA ORAIN ARTE HELDU BADIOGU, ORAINDIK ERE HELDUKO DIOGU"

horretan bilatzen duzu, egunerokotasunean.

Zure lehen diskoa "Amets bat" izan zen. Bete al duzu amets hori?

Ametsa disko hurra egitea zen: lehen diskoa. Bete dut, eta ongi bete gainera: 15-16. diskoa ateratzera goaz.

Nola uztartzen dituzu musika eta lana?

Oraintxe bertan musikaz bizi naiz. Berez tabernari ibili izan naiz eta harakina ere banaiz. Pandemia garaian, musikarekin ezin izan nuen jarraitu. Iruñera joan nintzen harakin lanetara 3 urtez. Bueltan, musika berriz hartu nuen. Autonomoa naiz eta arrastaka bada ere, horrekin nabil lanean. Garaian arabekoa izaten da musikarion bizitza. Uda kontzertu garaia izaten da, jaietako kontzertuekin... Gorabeherak izaten dira.




Proiektu askotan aritu zara. Sortuko dira besteak...

Berako Bandarekin herrian eta Lesakan egingo dugun kontzertua ekainean. Berako musikariren kantuekin egingako bertsio berezi batzuk sortu ditu Berako bandak eta haiek kantatuko ditugu. Lesakan ere ekainean Euskal Herriko musikariekin izango naiz. Disko berria prestatzen ari naiz eta zuzeneko bat ateratzekotan naiz. Olaia Inziarte eta Leire Leturia izango ditugu lagun.

Agur asko ari gara ikusten azken urteetan musikan.

Uztekotan egon nintzen pandemia aurretik. Nahiko egoera larrian egon ginen, baina orain arte heldu badiogu, oraindik ere helduko diogu. Batzuetan oso zaila da musika eta lanbidea uztartzea. Entitateen partetik ere ez dugu laguntza handirik jasotzen. Lortzen dugunarekin zaila da bizirautea. Espero dut urte luzez jarraitzea, baina ikusi beharko dugu zertan garen.







Osa itzazu lauki zuriak dominoan
domino zati hau zuzena izan dadin.



Labirintoa Lesakako inauterietako Zaku-zahar honek Maripurtzil izutu nahiko luke, baina ihes egiten dio. Lagun iezaiozu Zaku-zahar horri harengana iristen, harrapatzen ez badu barregarri geldituko da eta.

Itzala

Zein da Zaku-zahar pertsonaiaren itzal zuzena?



Begira, begira! Han aurre-aurrean dagoen pertsonaia tente beso-zabal hori Miel Otxin da, bide-lapur moduko bat. Gaizto samarra izan behar du, erretzera baitaramate txatxoek. Aurkitu bi txatxo multzoen artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Ziripot

Lantzeko Inauterietako pertsonaia ezagunenetako bat da Ziripot. Hona hemen berau, hamar bider. Ordena itzazu hamarrak handienetik txikienera, handienari 10 zenbakia emanez, eta txikienari 1, hurrenez hurren.



Sudokua



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (O, T, S, A, I eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Mozorro Festa

Gauza hauek guztiak Inauterietako

mozorroen osagarriak izaten dira. Horien artetik hiru bi bider ageri dira, zeintzuk? Bide batez, margotu itzazu denak.



Lantzeko Inauteria





Lehen korrikalariak Usurbildik bueltan.



Talde txiki bat Txokoalderako bidea hartzeko bihurtzea hartzen.

Ibai-ondo Backyard entrenamendua egin zuten larunbatean

Entrenamendua Santuenerako frontoitik abiatu zen eta Atallu industrialdera jo zuten.

Ibai-ondo backyard proba-rako entrenamendua egin zuten larunbat goizean Santuenerako frontoia hasita. Frontoitik abiatu, eta Atallu industrialguneraino joan, eta atzera Santuenerako barrera Txokoaldera joan eta etorri egin

ziren partehartzaileak, Santuenerako bueltatuta zirkuitua osatuz. Batzuk korrika, besteak oinez, bakoitzak bere erritmora osatu zuten ibilbidea.

Kuadrilla polita elkartu zen goizeko bederatzietarako

frontoi inguruan eta hiru bat orduren buruan lortu zuten zirkuitua amaitzea partehartzaile gehienek. Zirkuitua eta modalitatea probatu nahi zutenentzat prestatutako entrenamendua zen, eta denetarikoa maila eta profiletako pertsonak hartu zuten parte.

Amaieran, eguerdiko 12:00ak aldera, hamaiketako egin zuten Ibai-ondo elkartean partehartzaile zein antolatzaileek. Izan ere, antolatzaile talde eder bat ere bidea erakutsi eta trafikoa zaintzen aritu ziren istripuak saihesteko.

Proba, apirilaren 12an eta 13an

Apirilaren 12 eta 13an izango da Ibai-ondo Backyard proba, goizeko 8:00etan hasita. Santuenerako frontoia, auzoa, Atallu eta erriberako bidetik Txokoalde lotuko ditu 6,7 kilometroko ibilbideak, eta 100 laguntzako toki egongo da. Ibilbidea ordu bete baino lehen osatzean oinarritzen da erronka hau eta ordu hori gainditu arte edo nekatu arte segi ahalko da parte hartzen ekimenean. Interesa dutenentzat, izen-ematea backyardibaiondo@gmail.com helbidearen bidez egin beharko da.

Oriako 31. Jaitsiera izan zen larunbatean Aginagatik abiatuta

31. ez egin zuten Oriako Jaitsiera larunbat arratsaldean arraun elkarteetako traineruak Mapil zein Saikolatik abiatuta Oriarako bidean errioren kurbetan barna.

Kontxa Estropada amaitu zenetik atsedean hartu eta denboraldi berria prestatzen aritu dira arraunlariak, eta larunbat arratsaldean, aukera izan zen Aginagan traineruak berriro ere ikusteko. Irailaz geroztik, gure uretan estropada edo arraun probarik ikusi gabe geunden. Saikolatik abiatu

ziren 4000 metroko proban parte hartu zuten traineruak 16:30etan hasita, eta 17:50etan Mapildik 6000 metrokoan parte hartu zutenak. Lehena ere izan ziren txapelketak, baina ez goren mailakoak.

Lehen jaitsieran absolutu mailako emakumeetan hona emaitzak: Arraun Lagunak A



Oriako trainerua Mapildik behera abiatzean, abisuaren zain.

(13:45), Orio (13:53), Tolosa (14:09), Hibaika (14:18), Zumaia (14:18), Hondarribia (14:18), Donostiarra (14:20), San Juan (14:30), Zarautz (14:31), Ondarroa (14:34), Hernani (15:03), Portugalete (15:13), Arraun Lagunak B (15:17).

Bigarrenen, berriz, gizonezko absolutuak aritu ziren eta

horra emaitzak: Orio A (19:46), Donostiarra A (20:00), Hondarribia A (20:11), Ondarroa A (20:16), San Juan A (20:17), Orio B (20:27), Getaria (20:30), Zumaia (20:34), Zarautz (20:40), San Pedro (20:44), Hondarribia B (20:58), Ondarroa B (21:02), Arkote (21:13), San Juan B (21:20), Hibaika (21:28).



Gazte talde bat, Ostolaza eta Larrañagarekin dantzan.



Bertso-afaria Andoni Egaña, Julio Sotok eta Nerea Elustondok girotu zuten.

Erromeria eta bertso-afaria Aginagako eliza zaharrean

Aginagan asteburu mugitua izan zuten Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak girotuta-

ko erromeriarekin. Larunbat arratsaldean izan zen trikitilari eta pandero bikotea dan-

tza egiteko plaza bilakatuta Eliza Zaharra, eta ondoren, bertso-afaria Andoni Egaña,

Julio Soto eta Nerea Elustondok kantatutako bertsoen eriritmoan.



Izan Bai taldeak estraineko kontzertua eskainiko du larunbatean.



Txiskeroak taldekoak ere arituko dira Aginagako Eliza Zaharrean.

Izan Bai taldearen lehen metal eztanda

'Dena galdu baino lehen' diskoa plazaratu eta gero, zuzenekoekin hastear da Usurbilgo talde berria. Eta lehena, larunbat honetan eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrean.

Ixak Arruti taldeko kantaria eta gitarrajolea da eta kanta guztien egilea. Abestiak osatu zituenean, gainerako taldekin jarri zen harremanetan eta horrela osatu zen Izan Bai

taldea. Diskoko kantak Zumaiako Ozen Estudioan grabatu eta gero, zuzenekoetan pentsatzen hasi ziren. Lehena larunbat honetan eskainiko dute eta, abentura berrian, lehen gonbidatuak Txiskeroak taldekoak izango dira.

Ixak Arrutirekin batera, Mendeku Itxua taldeko beste kide bat ere bada Izan Bai

taldean, Martin Larrañaga bateriajolea.

Otsailak 22 larunbata

- Txiskeroak eta Izan Bai. • 18:00etan, Aginagako Eliza Zaharrean.
- Sarrera: 2 eurotan usurbilkultura.eus webgunean.
- Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL



Mendeurrenako aurkezpen ekitaldian Usurbil nahiz Zubietako pilota elkarte ordezkariek izan ziren. Usurbilgo Udala ere, ospakizun babesleeta bat izango da.

Usurbil, Pilota Federazioaren mendeurrenaren babesleeta bat

Ehun urte beteko ditu abuztuaren 9an Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak. Mendeurren honen harira, ospakizun zikloan murgildu dira pilotariak eta pilotazaleak.

100. urtemuga ekimenen aurkezpen ekitaldia egin du egunotan Donostiako Atano III.a pilotalekuan. "100 urte ez da helmuga, eta etorkizunera ilusioz beteta begiratu nahi diogu", adierazi dute aipatu federaziotik.

Hitzorduak federazioko ki-deak, udalerrietako pilota elkarteak, babesleak edota hainbat erakundeetako ordezkariek batu zituen; haien artean zen, esaterako, Usurbilgo zein Zubietako Pilota Elkarte or-

dezkaritza bat edota Usurbilgo Udala. Udala hain zuzen, mendeurrenako ospakizun babesleen artean egongo da. Pilota federazioa, bestalde, Zubietako erreboten plazako garai bateko neurketa baten argazki bat baliatzen ari da, gipuzkoapilota.eus atarian ziklo honi eskainiko dion atalaren azalerako.

"Urte osoko festa"

Federazioak bidelagun haiei guztiei urteotan eskainitako

babesa eta laguntza eskertu zien. Aurtengorako asmoa, "urteko guztiko festa" izatea da. Horregatik, hileroko ekintzak izango dira orain hasi eta abuztura arte. Mendeurrenako ospakizun aurkezpen ekitaldia izan zen lehen hitzordua. Izan ere, bertan aurkeztu zuten 100 urteok oroitarazteko federazioak baliatuko duen irudi berria, lehia-keta bidez hautatua izan dena, Irati Etxeberria Mateosek sortutakoa.

Iragarri dituzten ekimenen artean dira, "euskal pilotaren iruditeriarekin sortutako karta-sorta; emakume pilotariak protagonista izango diren eguna eta haien ibilbidea jasotzen duen erakusketa; bertso-jaialdi bat; federazioaren historia jasotzen duen argitalpena; espezialitate zaharrenen partida ikusgarriak; jokamolde desberdinen pilota festak; arxibo historikoa jendartera zabaltu; jaialdi bikaina abuztuan..."

"ETORKIZUNARI ILUSIOZ BETETA BEGIRATU NAHI DIOGU"

GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

Andoni Iraola, Premier League txapelketako hileko entrenatzaile

2023az geroztik, azken bi urteotan Ingalaterrako Bournemouth futbol taldea zuzentzen ari da Andoni Iraola. Albiste dugu usurbildarra, hango futbol txapelketako, hau da, Premier League-ko hileko

entrenatzaile izendatu dutelako.

Ez da halako izendapen bat jasotzen duen lehen aldia; iazko martxoan ere hilabete hartako entrenatzaile izendatu zuten, taldeak izandako

emaitzengatik. Oraingoan ere, urtarrila neurketa bakar bat galdu gabe amaitu du Bournemouth taldeak. Saikapen orokorreko zazpigarren postuan da, Champions League txapelketatik hiru puntura soilik. Talde berak jaso ditu, urtarrilari dagokion hilabete-ko jokalariei eta gol onenen izendapenak.



Bournemouth taldea gidatzen du.

Udal dirulaguntza deialdietara aurkezteko aukera ireki da

Laguntza lerro hauetara guztietara eskabideak aurkezteko epea martxoaren 14ra arte da, kasu gehienetan. Beste dirulaguntza deialdietan parte hartzeko tarte gehiago luzatuko da.

Etxebizitzan igogailua instalatzeko dirulaguntzak

- Epea: 20 egun balioudun otsailaren 15etik zenbatzen hasita.
- Laguntza: gehienez 1.000 euro eskaera bakoitzeko.

Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak

- Laguntza: hileko errenta konputagarriaren ehuneko bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko muga izango du, eta gehienez hamabi (12) hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gaintitu hileko errentaren %50a.

Gizarte Ongizateko dirulaguntzak

- Xedea: diruz lagunduko dena da Gizarte Zerbitzuen arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira edo ordezkatzan badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda. Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Ingurumeneko dirulaguntzak

- Xedea: Usurbilgo Udalaren 2025eko ingurumen dirulaguntzen oinarri erregulatzaileria ezartzea, norgehiagoka erregimenean 2024 edo/eta 2025. urtean zehar ingurumen arloan egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei zuzenduta.



Udalaren web orrian jaso ditzakezue xehetasun guztiak, usurbil.eus helbidean.

Kirol saileko dirulaguntzak

- Ohiko dirulaguntza zuzenak; kirol egokitutako jardueretarako laguntzak; kirol elkarteak ez diren kirol jardueretako ohiko dirulaguntzak:
- Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 17a (bi urte naturaleko jardueren kasuan), 2026ko urtarrilaren 9a (urte naturaleko jardueren kasuan).

Kultur egitasmoetarako dirulaguntzak

- Xedea: Kultura Sare eraldatzailea, dinamikoa eta parte-hartzailea sustatzea; kultur eskaintza erakargarria, anitza, hurbila eta eskuragarria sortzea; herritarrek ongi pasatzea bideratua dagoena eta era berean, bertako kultura balioan jarri eta gizarte integratzailea eraikitzen lagunduko duena.

Nekazaritza eta abeltzaintza saileko dirulaguntzak

- Diruz laguntzeko lehentasunezko ekintzak: 28 urtetik beherako nekazarien ustiapen berriak, hildako animalien

kudeaketa, ekoizpen ekologikoa, sagastien landaketa, erlegintza, emakume nekazarien ekintzak, baseritarren lan-baldintzen hobekuntza, tokiko produktuen kontsumoa, tokiko abere arrazen sustapena, nekazarien prestakuntza...

Lokal komertzial hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko dirulaguntzak

- Xedea: hasierako gastuak eta alokairu edo erosketak gastuak.

Hasiz Hazi dirulaguntza deialdia

- Xedea: 2025 urtean, jardueraren proiektu bat duen ekintzaileari, Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunearen egonaldi eta erabilera diruz ordaintzeko.

ESKAERAK TELEMATIKOKI EDO UDALETXEAN BERTAN EGIN DAITEZKE

Kultur sorkuntzarako dirulaguntzak

- Xedea: Usurbilgo artistei sorkuntza prozesuetarako dirulaguntzak ematea.

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak

- Kontuan hartuko diren tratamenduak: fisioterapia, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotritate, psikoterapia-psikologia, terapia bereziak eta optometria-terapia bisualak.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako dirulaguntzak

- Xedea: oinarrizko beharrak asetzeko da, baliabide ekonomikorik ez eta bestelako laguntzak jaso ezin dituzten pertsona edo familiei zuzenduta daude. Lehen mailako premiak (etxebizitza, mantenua...) eskuratzeko bidea erraztea, beste administrazio batzuen bidez ematen diren prestazioak eskuratu ezin direnean.

Deserrotze eta bazterte sozialerako arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntzak

- Nori zuzendukoak: 2024ko joan-etorrien gastuetan, baitetik, Usurbilgo kanpo dauden pertsonen senideei eta, baitetik, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (sartzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) aldi batez haien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideei.

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak

- Eskabideak aurkezteko epealdia: azaroak 12.

Eskabideak:

- Presentzialki udaletxeko erregistroan (Joxe Martin Sargardia plaza z/g).
- Telematikoki usurbil.eus atarian.



Xabier Elozegi mediku gazteak MIREko 36. nota onena atera du.

"Aita bidelagun eta inspirazio iturri dut"

XABIER ELOSEGI MEDIKUNTZAKO IKASLEA

Medikuntzako gradua amaitu eta MIR azterketa egin du Xabier Elozegi herritarrak. Estatuko 36. notarik onena lortu du, eta Gipuzkoako onena izan da. Aparatu digestiboko kirurgian espezializatzeko asmoa du Donostia ospitalean. Horra balentria horren nondik norakoak.

MIREan Gipuzkoako notarik, eta beraz, posturik onena lortu duzu. Espero zenuen?

Ezta inondik inora ere. Oso zaila izaten da lehen 100etan sartzea. Nire helburua lehen 1000tan sartzea zen. Lehen 3000tan sartzen bazara, ondo egin duzula esan ohi da, horrek ematen baitizu aukera nahi duzun espezialitatea hautatzeko.

Nola lortzen da hori?

Nota osoa lortzeko, eta horren arabera plazen esleipena egiteko, MIR probak notaren %90eko balioa hartzen du, eta gainontzeko %10 unibertsitate ikasketetan lortutako batez besteko notaren arabera lortzen da. 6 urtetako lanaren ondorioa izaten da. Azterketa oso zaila izaten da, baina pla-

za lortzeko beharrezkoa da. Notaren arabera esleitzen dituzte plazak eta kontuan hartu behar da 14.000-15.000 pertsona aurkezten direla azterketa horretara. Inork ez du barkatzen. Zailtasun nagusia gaitegia izan ohi da, ez baitago gaitegi itxirik, eta beraz, edozer galdetu dezakete. Aurreko urteetako joerak ikusita, espezialitate bakoitzetik gutxi gorabehera zenbat galdera

"GOMENDATZEN ZIGUTEN EGUNEAN 11 EDO 11 ORDU ETA ERDI IKASTEA, ETA IGANDEETAN JAI EGITEA"

toka daitezkeen ondoriozta dezakezu, baina urtero aldatu egiten da. Beraz, ikasketetan emandako guztia ikasi behar duzu, eta horretaz gain, azken ikerketen emaitzak eta azken aldaketa guztien berri izan behar duzu. Normalean, zaila izaten da bakarrik prestatzea azterketa aipatu ditudan kontuengatik, eta akademiara joatea izaten da ohikoena. Bertan esperientzia dute eta

"ZURE ESKU DAGOEN GUZTIA EGIN BADUZU, HORI DA BALIO DUENA, HORI DA ARRAKASTA"

jakiten dute gutxi gorabehera zein gai izan daitezkeen garrantzitsuenak. Aurten, galderak dezente aldatu dituzte aurreko urtekin alderatuta, eta zailagoa izan da aurtengo azterketa. Batez besteko notak 10 puntu inguru erori dira, pentsa. Galdera teorikoak eta praktikoak izaten dira.

Horren nota ona ateratzeko ordu asko ikasi beharko zenuen.

Guri gomendatzen ziguten egunean 11 edo 11 ordu eta erdi ikasteko. Hori asteko sei egunetan, eta igandean jai.

Ikasketak non egin dituzu?

Unibertsitatera Iruñera joan naiz, OPUSera. Lehenago, ikasketa guztiak Donostiako Deutsche Schulen egin nituen. Egia esan, medikuntza sartzeko da zailena, gero zazpi urte unibertsitatean pasa behar dira. Batxilergoa eta selektibitatea izaten dira lehen oztopo handia, gero ikasketak jarraitzea izaten da, eta hurrengo oztopoa MIRA izaten da. Esfortzuekin eta lan eginda lor daiteke. Gazteei mezu hori bidaltzea gustatuko litzaidake: ikasketetan eta lanean esfortzuak beti balio duela, emaitza ona edo txarra izan. Zure esku dagoen guztia egin baduzu, hori arrakasta da.

Graduan unibertsitatean praktikak egiteko gorpuak izaten dituzue, ezta?

Graduko lehen urtean anatomia ikasteko gorpu bat erabiltzen da. Disekatutako gorpuak izan ohi dira. Liburuetatik ikastea ez dago gaizki, baina marrazkiak errealitate-tik asko urruntzen dira. Klase horietan jendea zorabiatu egin ohi da sarri. Inpresioa egiten du hasieran. Hala ere, hori ez da arazo izaten ikasketekin jarraitu ahal izateko, hau da, inork ez du uzten gradua horregatik. Medikuntza oso zabal da eta arlo asko barnebiltzen ditu; laborategitik hasi eta kirurgiaraino. Niri labora-

tegian lan egitea ez zait horrenbeste gustatzen, jendearekin lan egin nahiago dut. Aurpegiko kirurgiak inpresioa egiten dit, adibidez: mingaineko minbiziak eta halakoak ikusi ditut. Urdailean, berriz, ez dit inpresiorik egiten. Ez naiz sekula zorabiatu, ez halakorik. Ondo gosalduta joaten naiz ospitalera eta prest dena ikusteko.

Zirujau izateko prestatzen hasiko zara, beraz.

Nik aparatu digestiboko kirurgian egin nahi dut lan, aitak bezala. Bost urte izango ditut zirujau ofizial egin baino lehen praktikak egiteko. Mediku arduradunari lagunduko diot, azken finean. Ikasteko aukera bikaina da. Hasieran, begira egongo naiz mediku arduradunak zer egiten duen, eta pixkanaka eskuhartze gehiago izango dut. Laparoskopiak, robotak... halakoekin lan egin beharko dut. Probatu izan ditut pixkatxo bat orain arte.

Plaza lortu duzu jada?

Plazen aukeraketa apirilean egiten da. Beraz, ni 36.a izango naiz aukeran dauden plazen artean hautaketa egiten. Ospitalea eta espezialitatea aukeratu behar izaten dira eskaintzen diren plazen arabera. Nik nahi dudana espezialitatean lan egiteko plaza bat baino gehiago ateratzen dira Donostian urtero. Normalean bi plaza, baina urteren batean hiru ere bai.

Zeintzuk izaten dira espezialitate eskatuena?

Dermatologia eta kirurgia plastikoa. Dermatologia zerrrendako 500 edo 600 pertsona hautaketa egiterako amaitu egiten dira plazak, eta kirurgia plastikoan berriz 700 edo 800 hautaketarako. Dermatologia lan erraza eta eroso da. Astelehenetik ostiralera egiten da lan eta inongo guardia eta arazo handirik gabeko espezialitatea da. Kirurgia plastikoak, berriz, diru



Heste lodiko minbizia duen paziente bati ebakuntza egiten Xabier Elosegi, José Luis Elosegi (aita) eta Laura erizaina.

asko ematen du. Arlo pribatuan lan handia dago, baina publikoak ere aukera politak ematen ditu espezialitate horietan. Erreduren unitatean, edo istripu larriak izan dituztenekin lan egin ohi dute publikoan. Hala ere, jende gehienak ez du horregatik aukeratzen espezialitate horiek.

Aita zirujaua duzu.

Hura izan da nire bidelaguna eta inspirazio iturria. Aparatu digestiboko zirujaua da bera ere, eta beraz, berarekin lan egiteko aukera izango dut. Medikuntzan gehien erakartzen nauena pertsonetikoa tratua da eta lagundu ahal izatea. Ingenieritza eta halakoak ere asko gustatzen zitzaizkidan, baina pertsonetikoa gertuko harremana galdu egiten da arlo horietan. Haurra nintzela, eta aitarekin nindoanean, askotan kalean hitz egiteko gelditzen zuten zenbait pazientek eta eskerrak ematen zizkioten bizitza salbatu izanagatik. Hori ikustea oso polita da. Medikuntza orokorreko arloak gustatzen zaizkit arlo asko ukitzen dituztelako. Gure arloan esofagotik hasi eta uzkirainoko bidean aurkitzen dugunarekin lan egiten da: minbiziak, besikulako harriak,

gibelesko arazoak, pankreako gaixotasunak... denetik aurki dezakezu. Hori iruditzen zait dibertigarriena, aukera mordoa eskaintzen duela. Anaia eta arreba ere medikuntza ikasten ari dira, beraz, aitak etxean eragin handia izan du guregan. Etxean elkarrizketa asko medikuntzari buruzkoak izaten dira.

Ibilbidean lagundu dizu aitak?

Askotik. Zalantzekin lagundu dit eta ikasteko motibazioa ere askotan eman dit. Hiru orduko eginda egon naiz askotan, eta gainontzekoa ikasten. Momentu horietan familiakoen babesa eta indarra ezinbestekoak dira. Batxilergoan medikuntzan sartzea erabaki nuenean aitak ohartarazi zidan ez dela lan erraza, egun osoa jendez inguratuta egon behar dela, egun batzuk gogorak izaten direla eta abar. Zerbait

gaizki ateratzen denean etxera eramaten duzu hori. Medikuguztiekin dituzte buruan ondo atera ez diren ebakuntzak, baina ikusi behar zenbat diren eta bestalde zenbat on egin duzun. Nik graduko lehen urtea amaitu nuenean, herriko ambulategian aritu nintzen praktikan, eta pertsona baten heriotza zertifikatza joan behar izan nuen. Negar egin nuen senitartekoa izango bantintz bezala. Ez dut gizon hori sekula ahaztuko. Gure lanean berri txarrak ematea ere tokatzen da, eta hori oso gogorra da.

Medikuntzan aurrerapen handiak egin dira.

Prebentzioa oso garrantzitsua da. Jendeak gauza asko gaizki egiten ditu eta gure lana da aholkuak eman eta laguntzea. Ni ez naiz epailea, laguntzeko prest dagoen norbait baino. Ebakuntza sinpleetan ondo moldatuko gara, baina konplikatuak direnak erronkak dira eta helburuak lortzean asebetetzea handiagoa da. Astekari zientifikoak dauzkagu azken ikerketekin eta abar, eta medikuon betebeharra da horien berri izatea. Ez bazaude egunean, segituan atzean geratzen zara.

"NI EZ NAIZ INOREN EPAILEA, LAGUNTZEKO PREST DAGOEN PERTSONA BAT BAINO"

Literatura solasaldiak eta komiki tailerra, udal liburutegian

Udal liburutegiak hiru jarduera iragarri ditu martxorako. Tartean, *Soy Milena de Praga* eta *Subcampeón* liburuen inguruko solasaldiak. Lan hauen aleak liburutegian dituzue eskuragarri.

Gaztelarazko literatura solasaldia, Ana Merinorekin
Martxoaren 10ean astelehenarekin, gaztelarazko literatura solasaldia. Ana Merinok gidatuko du saioa, 19:00etan hasiko da eta Monika Zgustovaren *Soy Milena de Praga* liburua izango dute hizpide.

Solasaldia Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirrekin
Martxoaren 18an, Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirre Suteigiko auditoriora hurbildu-

ko dira. 18:30ean hasiko den solasaldian, elkarlanean idatzitako *Subcampeón* liburuz arituko dira luze-zabal hizketan.

Komiki tailerra, 'Axi'-rekin
Martxoaren 28rako aldiz, komiki tailer bat antolatu dute udal liburutegian. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta Ainara Azpiazu "Axi" k gidatuko du. 8/9 urtetik gorako (LH4tik gorako) haur eta gaztetxoek zuzendua dago (DBH barne). Saio honetan komiki



Ana Merinoren solasaldian Monika Zgustovaren liburu bat aztertuko dute.

bat egiteko oinarritzko ezagutzak eta baliabideak eskainiko dira: biñetak, bokadilloak eta beste. Plazak ordea, mugatuak dira. Beraz, aurrez eman behar da izena udal liburutegian.

Oharra:
Bi solasaldietako liburuek udal liburutegian eskuratu daitez-

ke, norbaitek aurretik irakurri nahiko balitu.

"AXPI-K KOMIKI TAILER BAT ESKAINIKO DIE 8-9 URTEKO GAZTETXOEI"

Osa itzazu lauki zuriak domino zati hau zuzena izan dadin.

DOMINOAN

Lesakako inauterietako Zaku-zahar honek Maripurtzil izutu nahiko luke, baina ihes egiten dio. Lagun iezaiozu Zaku-zahar horri harengana iristen, harrapatzen ez badu barregarri geldituko da eta.

Labirintoa

Zein da Zaku-zahar pertsonaiaren itzal zuzena?

Itzala

Begira, begiral! Han aurre-aurrean dagoen pertsonaia tente beso-zabal hori Miel! Otxin da, bide-lapur moduko bat. Gaizto samarra izan behar du, erretzera baitaramate txatxoak. Aurkitu bi txatxo multzoen artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.

Ziripot

Lantzeko Inauterietako pertsonaia ezagunetako bat da Ziripot. Hona hemen berau, hamar bider. Ordena itzazu hamarrek handienetik txikienera, Handienari 10 zenbakia emanez, eta txikienerari 1, hurrenez hurren.

Sudokua

I	T	A	L	S	O
L	O	S	T	A	I
T	I	O	S	L	A
S	A	L	I	O	T
O	S	T	A	I	L
A	L	I	O	T	S

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (O, T, S, A, I eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Mozorro Festa

Gauza hauek guztiak Inauterietako moztarren osagarriak izaten dira. Horien arteatik hiru bi bider ageri dira, zeintzuk? Bide batez, margotu itzazu denak.

Lantzeko Inauteria

'Plazan Bazan' 12-13 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe bat edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabilta. Orduetgia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

HILDAKOAK



Mari Carmen Cruz Lazkano Zulaika
Otsailaren 14an hil zen, 92 urterekin.



Angelita Ibarгойen Alzaga
Otsailaren 14an hil zen, 84 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxonea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Pilota Usurbilen

Otsailak 21 ostirala, 17:45

Infantilak binaka 3. Mailan: Pagazpe- Alde Zaharra 1

Infantilak binaka 1. Mailan: Pagazpe - Hernani 2

Boleibola Oiardon

Otsailak 23 igandea:

- 09:30 Infantil mutilak:

Usurbil-Tolobolei

Eskubaloia Oiardon

Otsailak 22, larunbata

- 10:00 Kadete neskek: Cortes Usurbil K.E.-Pulpo EK

- 12:00 Jubenil neskek:

Usurbil K.E.-Ingou Arrasate

Futbol partidak

Otsailak 22, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil F.T. C-Ostadar Saiarre KT
- 11:30 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Lazkao KE C
- 18:00 Preferente mutilak: Usurbil F.T.-Roteta C.D.

Otsailak 23, igandea

- 10:00 Infantil neskek: Usurbil F.T.-Urnieta CD
- Usurbil F.T. B-Martutene K.E.
- 11:30 Infantil mutilak: Usurbil F.T. B-Texas Lasartearra

Otsailak 22, larunbata (kanpoan)

- 09:00 Erregionalak, Orio: Orioko F.T. B-Usurbil F.T. B
- 11:00 Infantilak m., Garmendipe: Lagun Onak CD B-Usurbil F.T.
- 12:00 Infantil txikiak, Astigarragan: Astigarraga FKE-Usurbil F.T.
- 15:30 Ohorezko jub.k, Zumaian: Zumaiaiko F.T.-Usurbil F.T.

Otsailak 23, igandea (kanpoan)

- 13:00 Jubenilak, Beraunen: Orereta F.C. B-Usurbil F.T. B
- 18:00 Kadeteak n., Cesar Beniton: Sporting Herrera-CD C-Usurbil

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 21

USURBIL 'Heriotzak Eduardo du izena' ikuskizuna

Formol Laborategia eta Susa argitaletxearen eskutik. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
20:00 Sutegin.

LARUNBATA 22

USURBIL Elkargunearen aurkezpena

Antolatzaileak: Elkarguneko bultzatzaileak eta Usurbilgo Udala.
12:00 Sutegin.

AGINAGA Izan Bai eta Txiskeroak taldeen kontzertua

Izan Bai taldeak bere lehen diskoaren aurkezpena egingo du Aginagan. Sarrerak usurbilkultura.eus web orrian eskuragarri.
18:00 Eliza Zaharrean.

IGANDEA 23

USURBIL Kantu-jira

Usurbilgo Kantu Taldea, Sopela Kantari eta Kilometro Kantu Basauri taldeen eskutik.
12:00 Mikel Laboa plazan.

USURBIL Pettiren kontzertua Sutegin

Sarrerak: usurbilkultura.eus
18:30 Sutegin.



Sarrerak usurbilkultura.eus web orrian eskura daitezke.

Poesia ez-errezitaldia Formol Laborategiaren eskutik

'Heriotzak Eduardo du izena' ikuskizunaren atzean Formol Laborategia antzerki taldea eta Susa argitaletxea daude. Mundu Poesia Kaiarak liburu bildumak 10 urte betetzen dituen honetan, Susako lagunek bizirik dauden poetak hil nahi zituztela esan zieten Formoldarrei. Haiek metaforikoki esan omen zuten, bai-

na Formolekoek lana serio hartu dute... "Heriotzak Eduardo du izena" esperimentu bat da, soinu instalazioa, performancea eta antzerkia uztartuko dituena", Formol Laborategikoek aditzera eman dutenez.

Ostiral honetan Sutegin ikus ahal izango dugu, 20:00etatik aurrera.

Izan Bai taldearen lehen kontzertua

Izan Bai taldeak lehen diskoa plazaratu berri du, 'Dena galdu baino lehen' izenekoa. Larunbat honetan eskainiko dute lehen kontzertua Aginagan. Txiskeroak talde gaztea izango dute bidelagun. 18:00etan hasiko da kontzertua eta Izan Bai taldekoak 19:00ak aldera igoko dira Eliza Zaharreko oholza gainera. Sarrera 2 eurotan eskura daiteke usurbilkultura.eus web orrialdean.

Bisita gidatuak

Otsailak 22, larunbata
11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua eta organo erakustaldia.

Otsailak 23, igandea
10:00-13:00 Usurbilgo Sagardo Kulturari buruzko bisita.

Otsailak 26, asteazkena
10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Otsailak 28, ostirala
10:00-11:15 Zaintza-aren Usurbil.

Izen-ematea:
650usurbilbizi.eus

Pettiren kontzertua Sutegin

25 urte bete dira lehen diskoa plazaratu zuenetik, eta urteurrena ospatzeko bira bati ekin dio Pettik. Igandean honetan Sutegin izango da bere taldearekin batera. 18:30ean hasiko da kontzertua eta sarrerak usurbilkultura.eus web orrian eskura daitezke.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

INAUTERIAK 2025

ZEIN DA ZURE SUPERHEROIA?



OTSAILAK 28, OSTIRALA

18:30 USURBILGO INAUTERIA. Urde badator!
Herri-kalejira Agerialde-tik abiatuta.

Agerialde - Aranerreka - Txirikorda - Kalezar - Mikel Laboa Plaza

Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzera!

MARTXOAK 1, LARUNBATA

18:00 BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira.

22:30 ITZAL erromeri taldearen emanaldia frontoian.

LAGUNTZAILEAK: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkarte, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkarte



Usurbilgo Udala

TXOTX!!

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak eta Astearteak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Jai egun gauak
ITXITA

*Aurten ez da Txotx-ik egongo,
sagardoa botilan

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) •  943 55 69 81



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita


Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginasagardotegia.com
www.aginasagardotegia.com



Astelehena eta Asteartea: **ITXITA**
Asteazkena eta Osteguna: **20:00-00:00**

AIALDE BERRI

SAGARDOTEGIA

 **943 36 50 31**

Ostirala eta Larunbata: **13:30-18:00 / 20:30-01:00**
lgandea: **13:30-18:00**

 **Santu enea Aialde-berri, 20170, Usurbil**